*2025eko Aurrekontu Proiektua*

**Proyecto de Presupuesto 2025**

## SARRERA

"BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS SA" izenarekin —aurrerantzean BIDEGI—, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), 2002ko uztailaren 16an, Pertsona bakarreko Merkataritza Sozietate Anonimo bat eratu zuen, berezko eta GFAko zerbitzu teknikoko izaera emanaz, eta Sozietatearen objektu soziala GFAtik jasotako "hitzarmen-enkargu espezifikoen" bidez gauzatzeko prozedura ezarriaz. Sozietatearen sorrerako kapitala 360.000 euro izan zen.

GFA eta BIDEGIren arteko erlazioak artikulatzeko helburuarekin, 2004ko ekainaren 29an, Sozietateak hitzarmen bat sinatu zuen GFArekin. Hitzarmen horren bidez ezarri ziren, hain zuzen ere, era guztietako azpiegituren obra publikoak eraikitzeko eta ustiatzeko Aldundiak egiten dizkion enkarguen ondoriozko jarduketen oinarri erregulatzaileak. 2011ko apirilaren 8an, Sozietateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Hitzarmen berri bat sinatu zuten oinarri erregulatzaile berriak ezartzeko. Partikularki, data horretara arte BIDEGIri enkargaturiko jarduketen kudeaketa gauzatzeko emandako enkargu guztiak Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmenean (1GBH) batzeko.

2016ko uztailaren 20ko datarekin, Sozietateak eta GFAk lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten. Horren arabera, Antzuola-Bergara tarteko GI-632ren saihesbidearen obrak amaitzeko agindu zion bigarrenak lehenengoari. 2017ko maiatzaren 23an Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak Garapenerako Berariazko 1. Hitzarmena (1GHE) aldatzea erabaki zuen; era horretan, Antzuola-Bergara tartean GI-632 errepideko saihesbidearen obrak amaitzeko lanak arautuko dituen hitzarmena eta lan horiek kudeatzeko agindua bertan sartzeko. Halaber, obra horien zuzendaritza fakultatiboa burutzea ere agindu zen. Inbertsio honetarako GFAk jarritako kapital soziala 9.999.000 eurokoa izan zen.

## INTRODUCCIÓN

Con la denominación de "BIDEGI GIPUZKOAKO AZPIEGITUREN AGENTZIA-AGENCIA GUIPUZCOANA DE INFRAESTRUCTURAS SA" —en lo sucesivo BIDEGI—, la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG) constituyó el 16 de julio de 2002 una Sociedad Mercantil Anónima Unipersonal, con la condición de medio propio y servicio técnico de la DFG, con el procedimiento de recibir encargos de ésta para desarrollar su objeto social a través de los correspondientes "convenios-encargos específicos". El capital social fundacional fue de 360.000 euros.

Al objeto de articular las relaciones entre la DFG y BIDEGI, en fecha de 29 de junio de 2004 ambas partes suscribieron un "Convenio General", que establecía las bases reguladoras de la actuación que debe desarrollar BIDEGI en su relación con la DFG como consecuencia de los encargos que ésta le "encomiende" y que se instrumentan mediante la figura de "convenio-encargo específico". El 8 de abril de 2011, la DFG y BIDEGI suscribieron un nuevo Convenio General para establecer unas nuevas bases reguladoras. De manera particular, se estableció en este nuevo Convenio General la refundición de todos los encargos en vigor en esa fecha en relación a las actuaciones cuya gestión fue encargada a BIDEGI hasta la fecha, en un primer Convenio Específico de Desarrollo (CED1).

Con fecha 20 de julio de 2016 la Sociedad y la DFG firmaron un convenio de colaboración mediante el cual la segunda encomendaba a la primera la terminación de las obras de la variante de la GI-632 tramo Antzuola-Bergara. El 23 de mayo de 2017 el Consejo de Gobierno de la DFG acordó la modificación del Convenio Específico de Desarrollo nº1 (CED1) para incorporar al mismo la encomienda de gestión y el convenio que regularía la misma para la terminación de las obras de la variante de la GI-632 tramo Antzuola-Bergara, así como la dirección facultativa de dichas obras. El capital social que aportó la DFG para la inversión ascendió a 9.999.000 euros.

Beasain-Bergara korridoreko azken zatia, Antzuola eta Bergara artekoa, zerbitzuan jarrita, GFAko Gobernu Kontseiluak 2019ko martxoaren 26an hartutako erabakiaren arabera, GI-632 korridorearen izena A-636 izatera igaro zen; eta, ondoren, 2024ko irailaren 17ko erabakiaren bidez, AP-636 izatera.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan AP-8, AP-1 eta AP-636 gaitasun handiko errepide-sarea eraikitzeko, kontserbatzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko erregimenari dagokio 1GBHa.

Aipatutako errepideetako tarte batzuk eraikitzeko, BIDEGIk kanpo-finantzaketa jaso zuen, honela egituratuta:

- Hainbat finantzaketa-kontratu Europako Inbertsio Bankuarekin (EIB):
  - 200.000.000 euroko kreditua, 2007ko maiatzaren 4an sinatua, Eibar-Gasteiz A1 autobidearen B zatia egiteko proiektua gauzatzeko.
  - 100.000.000 euroko kreditua, 2008ko apirilaren 8an eta 16an sinatua, Eibar-Gasteiz A1 autobidea C tartea proiektua gauzatzeko.
  - 200.000.000 euroko kreditua, 2009ko urtarrilaren 26an sinatua, Donostiako Bigarren Ingurabidea proiektua gauzatzeko.

  Hiru kontratuak berritu eta berretsi ziren (i) 2011ko apirilaren 11n, kreditu-kontratu sindikatu bat sinatu zenean, eta (ii) 2023ko otsailaren 7an, eta GFAren bermea dute.

- Kreditu-kontratu sindikatu bat, 2011ko apirilaren 11n sinatua, 395.800.000 eurokoa, Espainiako zenbait finantza-erakunderekin (eragiketa korporatiboen eta lagapenen ondorioz, gaur egun sei erakunde dira), eta berritua (i), 2014ko uztailaren 8an sinatutako berritze-kontratuaren ondorioz, (ii) Donostiako notarioaren aurrean 2017ko uztailaren 28an publiko egindako kontratu baten ondorioz, eta (iii) 2023ko otsailaren 7an

Con la puesta en servicio del tramo final del corredor Beasain-Bergara entre Antzuola y Bergara, por acuerdo de Consejo de Gobierno de la DFG, de fecha 26 de marzo de 2019, la denominación del citado corredor GI-632 pasó a denominarse A-636; y posteriormente, por acuerdo de fecha 17 de septiembre de 2024, a denominarse AP-636.

El CED1 es aplicable al régimen de construcción, conservación, gestión y explotación de las vías de alta capacidad AP-8, AP-1 y AP-636, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, que se encuentran adscritas a BIDEGI.

Para la construcción de ciertos tramos de las vías mencionadas, BIDEGI contó con financiación externa estructurada de la siguiente manera:

- Diversos contratos de financiación con el Banco Europeo de Inversiones (BEI):
  - Crédito de 200.000.000 euros firmado el 4 de mayo de 2007 para la ejecución del Proyecto de Autopista A1 Eibar-Vitoria-Tramo B.
  - Crédito de 100.000.000 euros firmado el 8 y 16 de abril de 2008 para la ejecución del Proyecto Autopista A1 Eibar-Vitoria-Tramo C.
  - Crédito de 200.000.000 euros firmado el 26 de enero de 2009 para la ejecución del Proyecto Segundo Cinturón de San Sebastián.

  Los tres contratos fueron novados y ratificados el (i) 11 de abril de 2011, al suscribir un Contrato de Crédito Sindicado, (ii) el 7 de febrero de 2023, y cuentan con el aval de la DFG.

- Un Contrato de Crédito Sindicado suscrito el 11 de abril de 2011 por importe de 395.800.000 euros con varias entidades financieras españolas (como consecuencia de las operaciones corporativas y de las cesiones, actualmente son seis entidades), y novado (i) en virtud de contrato de novación suscrito el día 8 de julio de 2014, (ii) en virtud de contrato elevado a público ante el notario de Donostia-

sinatutako berritze-kontratuaren ondorioz.

San Sebastián, el día 28 de julio de 2017, y (iii) en virtud de contrato de novación suscrito el 7 de febrero de 2023.

Interes-tasaren arriskua estaltzeko, 2011ko apirilaren 11n eta 2011ko maiatzaren 20an Sozietateak Kreditu Sindikatuko Kontratuari lotutako interes-tasen estaldura-eragiketak arautzen dituzten Finantza Eragiketen Esparru Kontratuak sinatu zituen. Gaur egun, BIDEGIren finantza-tresnen zorroa hamar interes-swap-ek osatzen dute, eta horien kontrapartidak Kreditu Sindikatuan partaidetza duten Espainiako lau finantza-erakunde dira.

Para cubrir el riesgo de tipo de interés, el 11 de abril de 2011 y el 20 de mayo de 2011 la Sociedad formalizó los Contratos Marco de Operaciones Financieras que regulan las operaciones de cobertura de tipos de interés asociadas al Contrato de Crédito Sindicado. Actualmente la cartera de instrumentos financieros de BIDEGI está compuesta por diez swaps de tipo de interés cuyas contrapartidas son cuatro entidades financieras españolas que tienen participación en el Crédito Sindicado.

Gainera, BIDEGIk Berme Kontratua sinatuta dauka EIBrekin eta Kreditu Sindikatuko Kontratuaren kreditu-emaileekin, eta GFAren Konpromiso Kontratua BIDEGIren, GFAren, EIBren eta Kreditu Sindikalaren kreditu-emaileen artean, biak 2011ko apirilaren 11n, eta berrituak (i) 2017ko uztailaren 28an Donostiako notarioaren aurrean publiko egindako kontratuen ondorioz, eta (ii) 2023ko otsailaren 7an sinatutako berritze kontratuen ondorioz.

Además, BIDEGI tiene suscrito el Contrato de Garantías con el BEI y las Acreditantes del Contrato de Crédito Sindicado, y el Contrato de Compromisos de la DFG entre BIDEGI, la DFG, el BEI y las Acreditantes del Crédito Sindicado, ambas de fecha 11 de abril de 2011, y novados (i) en virtud de los contratos elevados a público ante el notario de Donostia-San Sebastián, el día 28 de julio de 2017, y (ii) en virtud de los contratos de novación suscritos el 7 de febrero de 2023.

2016ko uztailaren 6ko datarekin, Sozietateak eta GFAk hitzarmen berri bat sinatu zuten (Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmena (3 GBH)). Hitzarmen horren arabera, Aldundiak Sozietateari agindu zion kobratzeko sistemaren (teleordainketa bideratu gabe eta gelditu gabe, matrikulen irakurketa automatiko bidez ibilgailuen identifikazioarekin osatua, ibilbidean zehar kokatutako arkupe edo kobrantza-puntu batzuetatik igarotzean hautemateko mekanismo elektroniko batean oinarritua (free-flow teknologia) proiektua idazteko, gauzatzeko, abian jartzeko, mantentzeko eta ustiatzeko —Gipuzkoan N-I eta A-15 errepideek osatutako trafiko handiko errepide-ardatzaren tarte batzuetan—, baita errepide-tarte horiek kontserbatzeko eta ustiatzeko ere. GFAk 2016ko uztailaren 5ean 10 milioi eurogatik onartutako kapital-ekarpenaren bitartez finantzatu zen emakida hori.

Con fecha 6 de julio de 2016 la Sociedad suscribió un nuevo convenio con la DFG (Convenio Específico de Desarrollo nº3 (CED3)), mediante el cual la Diputación le encomendó a la Sociedad la redacción del proyecto, ejecución, puesta en marcha, operación, mantenimiento y explotación del sistema de cobro (telepeaje no canalizado y sin detención, complementado con la identificación de los vehículos mediante lectura automática de matrículas, basado en un mecanismo electrónico de detección al paso bajo unos pórticos o puntos de cobro situados a lo largo de la ruta (tecnología free-flow) en algunos tramos del eje viario de alta capacidad conformado por la N-I y A-15 en Gipuzkoa, así como la conservación y explotación de los citados tramos viarios. Esta concesión fue financiada mediante la aportación de capital aprobada por la DFG en fecha 5 de julio de 2016 por un importe de 10 millones de euros.

2018ko azaroaren 12an, Foru Gobernu Kontseiluak 6/2018 Foru Araua onartu zuen, zeinaren bidez arautzen baita salgaiak garraiatzen dituzten ibilgailu astunentzako kanona, Gipuzkoan gaitasun handiko A-15 eta N-

El 12 de noviembre de 2018 el Consejo de Gobierno Foral aprobó la Norma Foral 6/2018, por la que se regulaba para los vehículos pesados de transporte de mercancías el canon por uso de determinados tramos de las

l errepideetako zati jakin batzuk erabiltzeagatik. Diputatuen Kontseiluak, 2018ko abenduaren 11ko bileran, eta Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2018ko abenduaren 4ko bileran, 3GBHa aldatzeko gehigarria onartu zuten, erregulazio berrira egokitzeko.

carreteras de alta capacidad A-15 y N-I en Gipuzkoa. El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de fecha 11 de diciembre de 2018 y el Consejo de Administración de la Sociedad en su reunión de fecha de 4 de diciembre 2018, aprobaron la adenda modificativa del CED3 para adecuarlo a la nueva regulación.

2021eko urriaren 21ean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2020ko maiatzaren 5eko 100/2020 epaia, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salarena, 6/2018 Foru Araua baliogabetzat jotzen duena. 2021eko abenduaren 3an, Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 3ko 5/2021 Foru Araua onartu zuen, A-15 eta N-I errepideetan salgaien garraiorako ibilgailu astunak erabiltzeagatiko kanona ezartzekoa. Horrela, Gipuzkoako N-I eta A-15 errepideen trazadura osoak ibilgailu astunentzako ordainketa-sistema bat izango du —zeina bat datorren ezarritako jurisprudentziarekin—. 2021eko abenduaren 30ean, Foru Gobernu Kontseiluak eta BIDEGIren Administrazio Kontseiluak onartu ondoren, 3GBHa aldatzeko bigarren gehigarria formalizatu zen, 5/2021 Hirugarren Foru Arauari egokitzeko.

El 21 de octubre de 2021, se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa la sentencia 100/2020, de 5 de mayo de 2020, de la sala de lo Contencioso-Administrativo del TSJPV por la que se declara nula la Norma Foral 6/2018. El 3 de diciembre de 2021, el Consejo de Gobierno Foral aprobó la Norma Foral 5/2021, de 3 de diciembre de 2021, de implantación de un canon por uso para los vehículos pesados de transporte de mercancías en las carreteras A-15 y N-I en Gipuzkoa. De esta forma todo el trazado de las carreteras N-I y A-15 en Gipuzkoa estará sujeto a un sistema de pago para vehículos pesados —acorde con la jurisprudencia establecida—. El 30 de diciembre de 2021, previa aprobación por el Consejo de Gobierno Foral y el Consejo de Administración de BIDEGI, se formalizó la segunda adenda modificativa del CED3 para adecuarlo a la Tercera Norma Foral 5/2021.

Bigarren Hitzarmen Orokorra sinatu zen unean —2011ko apirilaren 8an— proiektu bakarra zegoen (1GBHren xede dena), eta, ondorioz, eragin argia zuen haren edukian BIDEGIk une hartan merkatu-finantzaketa lortzeko zuen beharrak. 1GBHren esparrutik kanpoko beste enkargu batzuk gauzatzea aurreikusten bazuen ere —2016ko uztailaren 6an sinatu zen 3GBHa—, haren edukiak zaildu egiten zuen 1GBHan ezarritako eredutik aldentzen zen edozein agindu mota gauzatzea, eta, beraz, mugatu egiten zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak errepideen arloan zuen autoantolaketa-ahalmena.

En el momento en el que se suscribió el segundo Convenio General —8 de abril de 2011— sólo existía un proyecto (aquel que es objeto del CED1), y, en consecuencia, su contenido estaba claramente influenciado por la necesidad de BIDEGI de obtener financiación de mercado en aquel momento. Aunque preveía la suscripción de otros encargos ajenos al CED1 —el 6 de julio de 2016 se subscribió el CED3—, su contenido dificultaba el encaje de cualquier tipo de encomienda que difiriera del modelo establecido en el CED1, y, por tanto, limitaba con ello la capacidad autoorganizativa de la Diputación Foral de Gipuzkoa en materia de carreteras.

Antolaketa-tresnak —GFAren eta BIDEGIren artekoak— eta finantzaketa-kontratuak Sozietatearen egungo egoerara egokitzeko helburuarekin, 2023ko otsailaren 7an sinatu zuten Hitzarmen Orokor berria eta 1GBH aldatzeko laugarren eranskina, eta formalizatu finantzaketa kontratuak berritzea.

Con el objeto de adecuar los instrumentos organizativos —entre la DFG y BIDEGI— y los contratos de financiación a la situación actual de la Sociedad, el 7 de febrero de 2023, se formalizó la suscripción del nuevo Convenio General y de la cuarta adenda modificativa del CED1 y la novación de los contratos de financiación.

GFAren Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2023ko

El Consejo de Gobierno Foral de la DFG, el 18

apirilaren 18an, eta BIDEGIren Administrazio Kontseiluak, 2023ko maiatzaren 19an, Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmenaren (3GBH) testu berria onartu zuten, Gipuzkoako Lurralde Historikoan N-I eta A-15 errepideek osatutako gaitasun handiko bide ardatzaren kobrantza-sistemaren proiektua idazteko, gauzatzeko, zerbitzuan jartzeko, jarduteko, mantentzeko eta ustiatzeko. Testu berri horrek jasotzen ditu BIDEGIk eta GFAk beren gain hartuko dituzten funtzioak, ahalmenak eta eskubideak. 3GBHren testu berria sinatu ondoren, indarrik gabe geratu zen 2016ko uztailaren 6an sinatutako eta 2018ko abenduaren 12an eta 2021eko abenduaren 30ean berritutako 3GBHa.

GFAren Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2024ko martxoaren 19an, eta BIDEGIren Administrazio Kontseiluak, 2024ko martxoaren 22an, onartu zuten Garapenerako Berariazko 3. Hitzarmenaren lehen gehigarria, GFAk eta BIDEGIk 2023ko maiatzaren 26an sinatutakoa. Lehen gehigarri horretan jasotzen da zer prozeduraren bidez jasanaraziko dizkion GFAk BIDEGIri 7/2016 eta 6/2018 foru-arauak auzitegiek deuseztatzearen ondorioz ordaindu behar dituen kalte-ordainen zenbatekoak.

**BIDEGI SAren helburu soziala:**

a) Berak edo hirugarren pertsonek, AP-8, Behobia-Bilbo autobidearen eta AP-1, Eibar-Gasteiz autobidearen Gipuzkoako tarteak eta bertako instalazioak mantentzea, kontserbatzea eta ustiatzea, baita hauekin lotutako edozein motatako zerbitzuak ere (adibidez, zerbitzuguneak eta garraio-zentroak).

b) Gipuzkoako Foru Aldundiak aginduko dizkien aipatutako azpiegituren tarte berriak, hobekuntzak, zabaltzeak eta luzapenak, berez edo hirugarren pertsonen bidez, proiektatzea, eraikitzea, kontserbatzea, finantzatzea edo ustiatzea.

2005eko irailaren 2an xede soziala zabaldu zen, aurretik aipatutakoari ondorengo puntu hau gehituz:

“Gipuzkoako Foru Aldundiak egiteko agintzen

de abril de 2023, y el Consejo de Administración de BIDEGI, el 19 de mayo de 2023, aprobaron el nuevo texto del Convenio Específico de Desarrollo nº3 (CED3), para la redacción de proyecto, ejecución, puesta en servicio, operación, mantenimiento y explotación del sistema de cobro del eje viario de alta capacidad conformado por las carreteras N-I y A-15, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Ese nuevo texto recoge las funciones, facultades y potestades que asumirá BIDEGI y la DFG. Tras la firma del nuevo texto del CED3, quedó sin efecto el CED3 suscrito en fecha 6 de julio de 2016, novado el 12 de diciembre de 2018 y 30 de diciembre de 2021.

El Consejo de Gobierno Foral de la DFG, el 19 de marzo de la 2024, y el Consejo de Administración de BIDEGI, el 22 de marzo de 2024, aprobaron la primera adenda al Convenio Específico de Desarrollo nº3 formalizado entre la DFG y BIDEGI el 26 de mayo de 2023. Esa primera adenda recoge la regulación del procedimiento mediante el cual la DFG repercutirá a BIDEGI los importes indemnizatorios a los que deba hacer frente como consecuencia de la anulación por parte de los tribunales de las normas forales 7/2016 y 6/2018.

**Objeto social de BIDEGI SA:**

a) El mantenimiento, la conservación y la explotación, por si o por terceras personas, de los tramos guipuzcoanos de la Autopista AP-8, Bilbao-Behobia, y de la Autopista AP-1, Eibar-Vitoria, y sus instalaciones, así como los servicios de cualquier naturaleza relacionados con las mismas tales como áreas de servicio y centros de transportes.

b) Proyectar, construir, conservar, financiar y explotar, por si o por terceras personas, los nuevos tramos, mejoras, ampliaciones y prolongaciones de las citadas infraestructuras que le sean encomendadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

El 2 de septiembre de 2005 se amplió el objeto social, agregándose a lo señalado anteriormente el siguiente punto:

"Proyectar, construir, financiar, mantener,

dizkion beste autobide batzuek eta gaitasun handiko errepideak eta horiei lotutako edozein motatako instalazio eta zerbitzuak berak zuzenean edo hirugarren pertsonen bidez eraiki, finantzatu, zaindu, artatu eta ustiatzea, eta, hala badagokio, aipatu azpiegituren tarte berriak, hobekuntzak, zabalketak eta luzapenak."

conservar y explotar, por sí o por terceras personas, otras autopistas y vías de alta capacidad, así como instalaciones y los servicios de cualquier naturaleza relacionados con las mismas, que le sean encomendadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa y, en su caso, los nuevos tramos, las mejoras, ampliaciones y prolongaciones de las citadas infraestructuras."

2008ko ekainaren 24an xede soziala zabaldu zen, honako hau gehituz:

El 24 de junio de 2008 se amplió el objeto social, agregándose lo siguiente:

"Sozietateak berezko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoko izaera du. Gipuzkoako Foru Aldundiak, kontratuak esleitu eta enkarguak egin diezazkioke beti ere kasu bakoitzean dagokion organoak ezarritako zehaztapen eta baldintzekin."

"La Sociedad tiene la condición de medio propio y servicio técnico de la Diputación Foral de Gipuzkoa pudiendo conferirle encomiendas y adjudicarle contratos, en los términos y con las condiciones que se determinen por los órganos correspondientes para cada caso."

Sozietateak ezingo du parte hartu Gipuzkoako Foru Aldundiak eginiko lehiaketa publikoetan, baina eskaintzailerik ez legokeen kasuan, Foru Aldundiak, Sozietateari lan horiek egitea agintzea izango luke.

La Sociedad no podrá participar en licitaciones públicas convocadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa sin perjuicio de que, cuando no concurra ningún licitador, pueda encargársele la ejecución de la prestación objeto de las mismas.

**BIDEGI SAren helbide soziala** Zarautzen dago. 2007ko uztailean aldatu zen Donostiatik horra.

**Domicilio Social de BIDEGI SA.** Se encuentra radicado en Zarautz. Se trasladó de Donostia-San Sebastián a esa localidad en julio de 2007.

**Administrazio Kontseilua**, 2008ko otsailaren 26ko aldaketa ezkero, Sozietateko Akziodunen Batzar Orokorrak hautaturiko lehendakari batez, lehendakariorde batez eta hiru eta hamaika batzarkide artean osatua egongo da.

**Consejo de Administración,** desde la modificación del 26 de febrero de 2008 se compone de un presidente, un vicepresidente y entre tres y once vocales, elegidos por la Junta General de Accionistas de la Sociedad.

Gaur egun Sozietatearen **kapital soziala** 20.719.000 eurokoa da.
Sozietatea Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua dago, 1972ko Liburukiko 115. Folioan, SS-21020 Orrian, 1. inskripzioan. A20783023 IFK zenbakia dauka.

Actualmente el **capital social** de la Sociedad asciende a 20.719.000 euros.
La Sociedad se halla inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa al folio 215, del Tomo 1972, Hoja SS-21020, inscripción 1ª. Su número de CIF es el A20783023.

## GERTAKARI GARRANTZITSUAK

2020an, Europar Batasuneko "Connecting Europe Facility" funtsak 2.759.914,98 euroko diru-laguntza eman zion BIDEGIri, AP-8an Garraio Zentro Integrala eraikitzeko inbertsioagatik.

## HECHOS RELEVANTES

En 2020, el fondo de la Unión Europea "Connecting Europe Facility" otorgó a BIDEGI una subvención de 2.759.914,98 euros por la inversión de la construcción del Centro Integral de Transporte en la AP-8.

Astigarragaren parean dagoen kokalekuak Europako 2023ko kamioi-aparkalekuaren saria jaso zuen, Europako Estazionamendu Seguruaren Erakundeak (ESPORG) emana, segurtasunaren arloan duen bikaintasuna eta profesionalei emandako zerbitzuen kalitate handia aitortzeko.

El emplazamiento situado frente a Astigarraga recibió el premio europeo al estacionamiento de camiones de 2023 otorgado por la Organización Europea de Estacionamiento Seguro (ESPORG) en reconocimiento a su excelencia en materia de seguridad y a la alta calidad de los servicios prestados a los profesionales.

**JARDUKETA, INBERTSIO ETA FINANTZAKETA PROGRAMA**

**PROGRAMA DE ACTUACIONES, INVERSIONES Y FINANCIACIÓN**

**EKITALDIKO KUDEAKETA-MEMORIA**

**MEMORIA DE GESTIÓN DEL EJERCICIO**

## SOZIETATEAREN JARDUERA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, BIDEGIren bitartez, zuzeneko kudeaketa-eredu bat ezartzen du:

GARAPENERAKO BERARIAZKO 1. HITZARMENA (1GBH)

*A) Eraikuntza eta inbertsioa.*

AP-8 autobidea zabaltzeko eta AP-1 autobidea eraikitzeko, baita gaitasun handiko AP-636 errepidea eraikitzeko ere: guztiak Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagozkion zatietan daude, eta horretarako egin beharreko inbertsioak eta azpiegituran berrinbertsioak autobideak berak ustiatzetik sortzen diren diru-sarreren kontura finantzatzen ditu.

*B) Mantentzea eta ustiapena.*

BIDEGIri atxikitako errepideen ohiko mantentze- eta ustiapen-lanak hirugarren bati azpikontratatuak daude.

2017ko abenduaren 20an, Gipuzkoako Lurralde Historikoko AP-8, GI-20, GI-632 eta AP-1 autobideak —hauei lotutako bide-adarrak, eta autobide horiei lotutako mota guztietako instalazioak, aparkalekuak, lursailak eta lehen aipatutako errepideei loturiko eraikuntza guztiak (zerbitzuguneak eta Jatetxeak izan ezik)— ustiatzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko zerbitzuak kontratatzea onartu zuen BIDEGI SAren Administrazio Kontseiluak, 296.600.000 euroko —BEZ kanpo— lizitazioko oinarri-aurrekontu batekin, eta zerbitzua zortzi urtez eskaintzeko epearekin. Kontratu hori BIDELAN

## ACTIVIDAD DE LA SOCIEDAD

La Diputación Foral de Gipuzkoa, a través de BIDEGI, implanta un modelo de gestión directa para llevar a cabo:

CONVENIO ESPECÍFICO DE DESARROLLO Nº1 (CED1)

*A) Construcción e inversión.*

La ampliación de la autopista AP-8 y la construcción de la AP-1 así como la construcción de la vía de alta capacidad AP-636, todas ellas en sus trayectos correspondientes al Territorio Histórico de Gipuzkoa; financia las inversiones y las reinversiones sobre la infraestructura con cargo a los ingresos que genera la explotación de las propias autopistas.

*B) Mantenimiento y explotación.*

Los trabajos de explotación y mantenimiento ordinario de las carreteras adscritas a BIDEGI se encuentran subcontratados a un tercero.

El Consejo de Administración de BIDEGI SA aprobó el 20 de diciembre de 2017 la contratación de los servicios para la explotación, mantenimiento y conservación de la AP-8, GI-20, GI-632 y AP-1 en el territorio histórico de Gipuzkoa incluidos sus ramales asociados y todo tipo de instalaciones, aparcamientos, parcelas y edificios vinculados a las vías anteriormente enumeradas, con excepción de las áreas de servicio y de restauración con un presupuesto base de 296.600.000 euros IVA excluido y un plazo de prestación del servicio de ocho años. Dicho contrato fue adjudicado por

GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK SA enpresari esleitu zioten 287.702.000 eurogatik. Kontratua 2018ko ekainaren 15ean sinatu zuten eta jarduera hurrengo egunean hasi zuten, 2018ko ekainaren 16an.

2021eko urrian, pleguetan jasotako aldaketak aktibatu ziren honetarako: AP-636 errepidea kontserbatzeko, eta errepide horretako elektrizitate-kontsumorako eta tunel-instalazioen behar berrietarako; eta 2022ko urtarrilean, AP-636 errepidearen kobrantza kudeatzekoa.

Pleguan araututako baldintzetan kontratua gauzatzeko bideraezintasun ekonomikoa dela-eta, 2024ko maiatzaren 10ean, BIDEGIko Administrazio Kontseiluak, Baldintza Partikularren Pleguaren 56. klausularen arabera, erabaki zuen "Gipuzkoako Lurralde Historikoko AP-8, GI-20, GI-632 eta AP-1 errepideak ustiatzeko, mantentzeko eta kontserbatzeko zerbitzuak, horiei lotutako adarrak eta instalazio, aparkaleku, lurzati eta eraikin mota guztiak barne, zerbitzuguneak izan ezik" kontratua elkarren arteko adostasunez suntsiaraztea, bai eta esleipendun berri bat egon arteko trantsizio-aldiari aplikatu beharreko akordioan jasotako baldintzak onartzea ere.

Aldi iragankor horretan, eta BIDELANek eman beharreko zerbitzuen irismena zehazte aldera, erabat aplikagarriak dira suntsiarazitako kontratua lizitatzeko balio izan zuten baldintza-agirietan ezarritako xedapen guztiak. Aldi iragankorrean zerbitzua emateagatiko hileko ordainketaren zenbatekoari dagokionez, operadorearen langileen kostua eguneratu da sinatutako hitzarmen kolektibo berrien arabera.

2024ko uztailaren 5ean egindako Sozietatearen Administrazio Kontseiluak onartu zuen lizitatzea "Gipuzkoako Lurralde Historikoko AP-8, GI-20, A-636 eta AP-1 errepideetan operazio-, mantentze- eta kontserbazio-zerbitzuak eta N-I eta A-15 errepideetan kobrantza-sistemaren operaziorako zerbitzuak". Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua 335.159.137,51 eurokoa da, eta epea 6 urtekoa, beste bi urtez luza daitekeena. Aurreikusten da 2024ko ekitaldiaren amaierarako esleitzea zerbitzua.

287.702.000 euros a BIDELAN GIPUZKOAKO AUTOBIDEAK SA. Firmaron el contrato el 15 de junio de 2018 e iniciaron la actividad al día siguiente, 16 de junio de 2018.

En octubre de 2021 se activaron los modificados recogidos en los pliegos para la conservación de la carretera AP-636, para el incremento por consumos eléctricos y para las nuevas necesidades de instalaciones de túneles de la AP-636; y en enero de 2022, el modificado para la gestión de cobro de la AP-636.

Debido a la inviabilidad económica para la ejecución del contrato en las condiciones reguladas por el pliego, el 10 de mayo de 2024, el Consejo de Administración de BIDEGI, de acuerdo a la cláusula 56 del Pliego de Condiciones Particulares, adoptó el acuerdo de resolver por mutuo acuerdo el contrato de “Servicios para la explotación, mantenimiento y conservación de la AP-8, GI-20, GI-632 y AP-1 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, incluidos sus ramales asociados y todo tipo de instalaciones, aparcamientos, parcelas y edificios vinculados a las vías anteriormente enumeradas, con excepción de las áreas de servicio y de restauración”, así como de aprobar las condiciones recogidas en el acuerdo aplicable al periodo transitorio hasta que haya un nuevo adjudicatario.

Durante ese periodo transitorio, y al objeto de determinar el alcance de los servicios a prestar por BIDELAN, son plenamente aplicables todas las disposiciones establecidas en los pliegos que sirvieron para licitar el contrato resuelto. En cuanto al importe del abono mensual por la prestación del servicio en el periodo transitorio se actualiza el coste del personal de la operadora según los nuevos convenios colectivos firmados.

El Consejo de Administración de la Sociedad celebrado el 5 de julio de 2024 aprobó licitar los “Servicios para la operación, mantenimiento y conservación de las carreteras AP-8, GI-20, A-636, AP-1 y operación del sistema de cobro en las carreteras N-I, A-15 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa” con un presupuesto base de licitación de 335.159.137,51 euros y plazo de 6 años, prorrogables por 2 años más. Se prevé adjudicar el servicio para finales del ejercicio 2024.

*C) Zerbitzuguneen ustiapena*.

Zerbitzuguneak ustiatzea hirugarrenei emandako emakiden bidez.

2003an CEPSA ESTACIONES DE SERVICIO SAri esleitu zitzaion AP-8ko zerbitzuguneen ustiapena (Oiartzun, Itziar eta Aritzeta). Kontratua 15 urtetarako (5 urte gehiago luzatzeko aukerarekin) sinatu zuten. Luzapen hori 2014ko abenduaren 16an onartu zen.

2007ko abuztuan, AP-1 autobideko zerbitzuguneak eta AP-8ko Donostiako 2. ingurabideko zerbitzuguneak idazteko, eraikitzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko lehiaketarako baldintzen agiria argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Lehiaketa hori REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLÍFEROS SA enpresari esleitu zitzaion. Kontratua 2008ko martxoan sinatu zuten 20 urtetarako.

Bestalde, jatetxeen, kafetegien eta denden ustiapena —helburu horietarako dauden eraikinetan— hirugarrenekin azpikontratatzeko kontratuan ematen zitzaion ahalmenaz baliatuz, CEPSAk, 2004ko urtarrilaren 28an AUTOGRILL ESPAÑA SAU merkataritza-enpresarekin sinatu zuen kontratu hori.

CEPSAk aldez aurretik eskatuta, 2010eko uztailaren 28an, BIDEGIko Administrazio Kontseiluak baimena eman zuen kontratu bidez CEPSAk AUTOGRILLeri lagatzeko zerbitzuguneetako ostalaritza-, jatetxe- eta denda-jarduerak.

2015eko urtarrilaren 27an, “AP-8ko Gipuzkoako bide-zatian dauden Oiartzungo eta Itziar I eta II-ko jatetxe- eta kafetegi-guneen kudeaketa” AUTOGRILL IBERIA SLU enpresari esleitu zitzaion. Kontratua 2015eko urtarrilaren 30ean sinatu zen 10 urtetarako (aldeek hala adostuz gero, kontratua beste 5 urtez luzatzeko aukera dago).

2021eko urtarrilaren 14an, AUTOGRILL IBERIA

*C) Explotación de las áreas de servicio.*

La explotación de las áreas de servicio por medio de concesiones a terceros.

En 2003 se adjudicó a CEPSA ESTACIONES DE SERVICIO SA, la explotación de las áreas de servicio de la AP-8 (Oiartzun, Aritzeta e Itziar). El contrato fue firmado por un plazo de 15 años prorrogable por 5 años más. Dicha prorroga fue aprobada el 16 de diciembre de 2014.

En agosto de 2007 se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el pliego de condiciones para el concurso de redacción, construcción, conservación y explotación de las áreas de servicio de la AP-1 y del segundo cinturón de San Sebastián en la AP-8. El adjudicatario fue REPSOL COMERCIAL DE PRODUCTOS PETROLÍFEROS SA. El contrato fue firmado en marzo de 2008 por un plazo de 20 años.

Por su parte, CEPSA, haciendo uso de la facultad, otorgada en el contrato, de subcontratar con terceros la explotación de los restaurantes, cafeterías y tiendas que se encuentran en los edificios destinados a dichos negocios en las áreas de servicio, suscribió a tal efecto un contrato con la mercantil AUTOGRILL ESPAÑA SAU el 28 de enero de 2004.

Previa solicitud de CEPSA, el Consejo de Administración de BIDEGI en fecha de 28 de julio de 2010, autorizó la cesión contractual de CEPSA a AUTOGRILL única y exclusivamente en lo referido a la actividad de hostelería, restauración y tiendas anexas a las áreas de servicio.

En fecha de 27 de enero de 2015, se adjudicó el contrato de «Gestión de las zonas de restauración y cafeterías de las áreas de servicio de Oiartzun e Itziar I y II en tramo Guipuzcoano de la Autopista AP-8» a la mercantil AUTOGRILL IBERIA SLU, el cual se firmó el 30 de enero de 2015 por un periodo de 10 años prorrogable por mutuo acuerdo por 5 años más.

El 14 de enero de 2021 AUTOGRILL IBERIA

SLU enpresak egoitza soziala eta fiskala aldatu zituen, eta izena honakoagatik: ÁREAS 2021 SLU. 2022ko irailaren 21ean onartu zuen ÁREAS SAU enpresak ÁREAS 2021 SLU enpresaren xurgapen bidezko bat-egitea.

ÁREAS SAUren eskaera jaso ondoren kontratuaren luzatzeko, BIDEGIk, 2024ko ekainaren 24an, 5 urtez luzatzea onartu zuen (2025eko urtarrilaren 31tik aurrera), 1.012.500 eurogatik.

2020ko uztailaren 24an, “AP-8 autobidean, Astigarragako eta Oiartzungo Garraio Zentro Integralaren (GZI) kontserbazio-, mantentze- eta ustiapen-zerbitzuaren emakidaren” kontratua CIT AUTOPISTA 8 SA ri esleitu zitzaion. Zerbitzuari hasiera emateko akta 2022ko urtarrilaren 28an sinatu zen.

2023ko azaroaren 1ean amaitzekoa zen CEPSArekin Gipuzkoako AP-8 autobideko Oiartzun, Itziar eta Aritzetako zerbitzuguneak ustiatzeko kontratua. Data horretan plegu berriak lizitazioan zeudenez (2023ko irailaren 28an onartu zuen BIDEGIren Administrazio Kontseiluak pleguak lizitatzea), 2023ko urriaren 19an BIDEGIk eta CEPSAk kontratuaren eranskina sinatu zuten, kontratu berria esleitu arte zerbitzua emango zela bermatzeko. Luzapena kontratu-parametro berberen arabera arautu zen.

2024ko urtarrilaren 26an, BIDEGIko Administrazio Kontseiluak honako hauek esleitzea onartu zuen:

- Oiartzun eta Aritzetako zerbitzuguneak ustiatzeko CEPSA COMERCIAL PETROLEO SAUri egindako kontratua, 6.523.258,00 €/ urteko zenbatekoagatik eta 5 urteko epea du. Zerbitzua martxan jartzeko akta 2024ko martxoaren 1ekoa da; eta
- "ESTACIONES DE SERVICIO DE GIPUZKOA, S.A." eta "ADENOR ENERGY, S.A. UNIPERSONAL" enpresek osatzen duten "ESERGUI-ADENOR E.S. ITZIAR" ABEEari Itziarko gasolina-zerbitzugunea ustiatzeko kontratua, 1.245.463,55 €/ urteko zenbatekoagatik eta 5 urteko epea du. Zerbitzua martxan jartzeko akta 2024ko apirilaren 17koa da.

SLU modificó su domicilio social y fiscal, y su denominación por ÁREAS 2021 SLU. El 21 de septiembre de 2022 quedó aprobado la fusión por absorción de ÁREAS 2021 SLU por ÁREAS SAU.

Tras recibir la solicitud de ÁREAS SAU de ejercer la prórroga del contrato, el 24 de junio de 2024, BIDEGI aprobó la prórroga de 5 años (a contar desde el 31 de enero de 2025) por importe de 1.012.500 euros.

El 24 de julio de 2020 se adjudicó el contrato de “Concesión del servicio de conservación, mantenimiento y explotación del Centro Integral de Transporte (CIT) de Astigarraga y Oiartzun en la autopista AP-8” a CIT AUTOPISTA 8 SA. El acta de inicio del servicio se firmó el 28 de enero de 2022.

El 1 de noviembre de 2023 finalizaba el contrato con CEPSA para la explotación de las áreas de servicio de Oiartzun, Itziar y Aritzeta de la autopista AP-8 en Gipuzkoa. Como en esa fecha los nuevos pliegos estaban en licitación (el 28 de septiembre de 2023 el Consejo de Administración de BIDEGI aprobó licitar los pliegos), el 19 de octubre de 2023 BIDEGI y CEPSA formalizaron la adenda al contrato para garantizar la prestación del servicio hasta la adjudicación del nuevo contrato. La extensión se rigió por los mismos parámetros contractuales.

El 26 de enero de 2024 el Consejo de Administración de BIDEGI aprobó adjudicar:

- el contrato para la explotación de las áreas de servicio de Oiartzun y Aritzeta a CEPSA COMERCIAL PETROLEO SAU por importe de 6.523.258,00 €/año y plazo de 5 años. El acta de puesta en servicio es de fecha 1 de marzo de 2024; y
- el contrato para explotación de la estación de servicio de Itziar a la UTE “ESERGUI-ADENOR E.S. ITZIAR” formada por las empresas “ESTACIONES DE SERVICIO DE GUIPUZCOA, S.A.” y “ADENOR ENERGY, S.A. UNIPERSONAL” por importe de 1.245.463,55 €/año y plazo de 5 años. El acta de puesta en servicio es de fecha 17 de abril de 2024.

GARAPENERAKO BERARIAZKO 3. HITZARMENA (3GBH)

Gipuzkoako Lurralde Historikoan, N-I eta A-15 errepideek osatzen duten gaitasun handiko bide-ardatzaren kobrantza-sistemaren proiektua idazteko, gauzatzeko, zerbitzuan jartzeko, jarduteko, mantentzeko eta ustiatzeko.

CONVENIO ESPECÍFICO DE DESARROLLO Nº3 (CED3)

Redacción de proyecto, ejecución, puesta en servicio, operación, mantenimiento y explotación del sistema de cobro del eje viario de alta capacidad conformado por las carreteras N-I y A-15, en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

**2024AN IZANDAKO JARDUKETA NAGUSIAK**

Hona hemen aurreko puntuan adierazi den jarduketa-esparruaren barruan, BIDEGIk 2024. urtean egin dituen edo egitea aurreikusi dituen jarduketa nagusiak:

*A) Berrinbertsioak:*

GARAPENERAKO BERARIAZKO 1. HITZARMENA (1GBH)

"2016-2020 aldirako ezohiko kontserbazio-plana" garatu ondoren (plan hori 2016-2022 aldian gauzatu zen), 2023an ekin zitzaion "2023-2040 berrinbertsio-planari", eta 2024ari dagokionez, honako programa eta jarduketa hauen arabera gauzatu da:

1) Bide-zorua:
   - AP-8ko eta AP-1eko zenbait zatitan errodadura-geruza berritzea. 2023ko uztailaren 7an, BIDEGIko Administrazio Kontseiluak 6.245.339,02 euroan esleitu zuen obrak egitea; 2023ko irailean hasi zituzten lanak eta, kontratua gauzatzeko epea 24 hilabetekoa izanik, 2025eko irailean amaituko dituzte.
   - Urumeako zubibidearen zorua AP-8an birgaitzea, Bilborako noranzkoan, 18+460 eta 19+454 KPen artean; 2023ko urrian hasi zituzten lanak eta 2024ko apirilean amaitu.

**PRINCIPALES REALIZACIONES DURANTE EL 2024**

Las principales actuaciones de BIDEGI durante el año 2024, realizadas o que se prevén realizar, dentro del ámbito de actuación comentado en el punto precedente son:

*A) Reinversiones:*

CONVENIO ESPECÍFICO DE DESARROLLO Nº1 (CED1)

Tras el desarrollo del “Plan quinquenal de conservación extraordinaria 2016-2020”, cuya implementación se llevó a cabo a lo largo del periodo 2016-2022, el 2023 es el año en el que se dio inicio al “Plan de reinversiones 2023-2040” y que en lo concerniente al presente 2024 se ha materializado con arreglo a los siguientes programas y actuaciones:

1) Firmes:
   - Renovación de la capa de rodadura en varios tramos de la AP-8 y de la AP-1. El 7 de julio de 2023, el Consejo de Administración de BIDEGI adjudicó la ejecución de las obras por importe de 6.245.339,02 euros; iniciaron los trabajos en septiembre de 2023 y, siendo el plazo de ejecución del contrato de 24 meses, finalizarán los mismos en septiembre de 2025.
   - Rehabilitación en la AP-8 del firme del viaducto del Urumea en sentido Bilbao entre los PK 18+460 y 19+454; comenzaron los trabajos en octubre de 2023 y los finalizaron en abril de 2024.

2) Arrisku geoteknikoak kudeatzeko programa:

- Ezponden eta lubeten aldizkako berrikuspen geoteknikoko lanen kontratuaren testuinguruan, honako dokumentu hauek idatzi dira:
  - AP-636 errepideko Ormaiztegirako irteera-adarreko 2+900 KPan ezponda bat egonkortzeko eraikuntza-proiektua.
  - Ohar teknikoa. AP-8ko 25+940 KPan Behobiarako noranzkoan izandako lur-jausiaren atariko balorazioa eta gomendioak.
  - AP-8ko 25+940 KPan ezponda egonkortzeko eraikuntza-proiektua, Behobiarako noranzkoan.
  - Ohar teknikoa. AP-8ko 53+195 KPan B-110-R gaineko pasabidea bermatzen duten horma ainguratuak sendotzea eta auskultatzea.
- Orioko irteerako 2. adarreko betelana egonkortzeko obraren likidazioa. 2023ko irailean hasi zuten obra; 2023ko abenduaren 12koa da lanen harrera-akta; eta, 2024ko urtarrilaren 26an, BIDEGIko Administrazio Kontseiluak azken ziurtagiria onartu zuen.
- AP-8 autobideko 53+195 KPan B-110-R gaineko pasabidea bermatzen duten horma ainguratuak sendotzeko eta auskultatzeko obrak.
- AP-8ko 52+500 KPan dagoen ezponda sendotzea, Bilborako norabidean.
- "A-636 autobideko BIDEGIren sareko ezponda eta lubetetako arriskuak arintzeko jarduketa puntualak" proiektuan jasotako lanak. 2024ko ekainaren 14an hasi zituzten lanak, eta kontratua gauzatzeko epea 11 hilabetekoa denez, aurreikusten da 2025eko maiatzean amaitzea kontratua.
- AP-636 errepideko (Antzuola) 17+050 KPan lerradura egonkortzea.
- AP-636 errepideko 16+800 KPan dagoen Antiguako biaduktuaren iparraldeko estribuko betegarri osagarriak egonkortzea eta lehengoratzea.

3) Egiturak:

- BIDEGIk kudeatzen duen errepide-sarearen egituren jarraipena egiteko

2) Programa de gestión de riesgos geotécnicos:

- En el contexto del contrato de trabajos de revisión geotécnica periódica de taludes y terraplenes destaca la redacción de los siguientes documentos:
  - Proyecto constructivo para la estabilización de un talud en el PK 2+900 del ramal de salida hacia Ormaiztegi de la AP-636.
  - Nota técnica. Valoración preliminar y recomendaciones del desprendimiento ocurrido en el PK 25+940 de la AP-8 en la calzada sentido Behobia.
  - Proyecto constructivo para la estabilización del talud en el PK 25+940 de la AP-8 en la calzada sentido Behobia.
  - Nota Técnica. Refuerzo y auscultación de los muros anclados sobre los que apoya el paso superior B-110-R en el PK 53+195 de la AP-8.
- Liquidación de la obra para estabilizar el relleno del ramal 2 de salida de Orio. Iniciaron la obra en septiembre de 2023; el acta de recepción de los trabajos es de fecha 12 de diciembre de 2023; y, el 26 de enero de 2024, el Consejo de Administración de BIDEGI aprobó la certificación final.
- Obras de refuerzo y auscultación de los muros anclados sobre los que apoya el paso superior B-110-R en el PK 53+195 de la autopista AP-8.
- Estabilización del talud situado en el PK 52+500 de la AP-8 sentido Bilbao.
- Los trabajos comprendidos en el proyecto de “Actuaciones puntuales para mitigación de riesgos en taludes y terraplenes de la red de BIDEGI en la Autovía A-636”. Comenzaron las labores el 14 de junio de 2024, y siendo el plazo de ejecución del contrato de 11 meses, la finalización del mismo está prevista para el mes de mayo del 2025.
- Estabilizar el deslizamiento en el PK 17+050 de la AP-636 (Antzuola).
- Estabilizar y restituir los rellenos de acompañamiento del estribo norte del viaducto de la Antigua en el PK 16+800 en la AP-636.

3) Estructuras:

- En el contexto del contrato para el

kontratuaren testuinguruan, honako jarduketa hauek nabarmentzen dira:

- Maltzagako zubibide estradosatuaren ikuskapen berezia.
- AP-1eko 126+00 KPan dagoen Arbizelaiko biaduktua konpontzeko proiektua idaztea. I. fasea.

- AP-636 autobidearen gaineko pasabide bereziaren ikuskapen-txostena, 6-5 fabrika-obra.
- Beasaingo AP-636ko 0+355 KPan dagoen gaineko pasabidea konpontzeko proiektua idaztea.

- AP-636 OD 2.3 azpiko pasabidean larrialdiko jarduketa egiteko proposamena
- AP-636ko 4+000 KPan kokatutako egitura indartzeko kalkulu-memoria.

- Hirubideko biaduktua. Ikuskapen-txostena.
- Ipuruako biaduktuaren ikuskapen bereziaren txostena.
- 12. KPko AP-8ko egiturak birgaitzeko proiektuak idaztea (Oiartzungo AP-8ko irteera-adarren proiektua).

